

KONTUEN EPAITEGI AUTONOMIKOETAKO LEHENDAKARIEN ADIERAZPENA

Kontuen epaitegi autonomikoetako lehendakariak, 2006ko urriaren 19an Iruñean elkarturik, funts publikoen kontrolaren egoerari buruzko agiria adostea erabaki dute, testu honetan plazaratuko dena. "Iruñeko Adierazpena" Kanpo Kontrolerako Organoetako lehendakarien konferentziaren lehenengo bileraren emaitza da eta ondotik zerrendatutako pertsonak izenpetu dute:

- Luis Muñoz Garde, Nafarroako Comptos Ganberaren presidentea.
- Joan Colom, Kataluniako Comptes Sindikaturaren sindiko nagusiak.
- Rafael Vicente, Valentziako Erkidegoko Comptes Sindikaturaren sindiko nagusiak.
- Luciano Fariña, Galiziako Contas Kontseiluaren kontseilari nagusiak.
- María Asunción Macho, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren lehendakariak.
- Rafael Navas, Andaluziako Kontuen Ganberaren kontseilari nagusiak.
- Rafael Medina, Kanarietako Kontuen Audientziaren lehendakariak.
- Miguel Ángel Cabezas, Gaztela-Mantxako Kontuen Sindikaturaren sindikoa.
- Manuel Jesús González, Madrilgo Erkidegoko Kontuen Ganberaren lehendakariak
- Pere Antoni Mas, Balear Irlletako Comptes Sindikaturaren sindiko nagusiak
- Gaztela-Leongo Kontuen Kontseiluaren lehendakaria
- Avelino Viejo, Asturiasko Printzerriko Kontuen Sindikaturaren sindiko nagusia.

Kontrolerako erakunde autonomoek 25 urte egin dituzte horietako lehenengoa - Nafarroako Comptos Ganbera- 1982an abiarazi zenez geroztik. Gaur egun, kanpo kontroleko hamabi organo autonomikok dihardute euren erkidegoetako sektore publikoa fiskalizatzeko lanetan; egiteko honi ekonomia-finantza gaietan nor bere legebiltzarrari ematen dion aholkularitza egitekoa gehitu behar zaio.

Kanpo kontrolerako erakunde autonomoek geure administrazioen esparruan kontrolaren gaineko kontzientzia publikoa sorrarazi nahi izan dugu, ez berezko helburu gisara hartuta, baizik eta egunetik egunera kudeaketa gardenagoa eta eraginkorragoa izaten laguntzeko baliabide modura. Ezinbesteko irizten diogu kontrolaren kultura hau kudeaketa publikoa osatzen duten esparru guztiek sakon barneratzea, bai arduradun politikoek, bai kudeatzaileek ere, egiten ditugun diagnostiko eta gomendioak baliagarri gerta daitezen diru publikoa kudeatzen duten haien zentzuz.

Kontrolerako erakunde autonomikoen ordezkari garen aldetik behin eta berriz errepikatu dugu komenigarria dela finantzaren fiskalizazio lana eraginkortasunaren azterketarekin osatzea, ziur baikaude XXI. mendeko herritarrak administrazioei jasotako euro bakoitza ahalik eta modurik zuhurrenean kudeatzeko eskatzen ari zaizkiela. Uste osoa dugu kudeaketa publikoan eraginkortasuna funtsezko erronka dela baliabide mugatuak dituzten administrazioentzat eta berehalako etorkizunean gogoeta honek giltzarri behar du izan kanpo kontrolerako organoentzat. Ordea, helburu hori bideratu ahal izateko beharrezkoa da administrazioen aurrekontu-politikek helburu zorrotzagoak eta adierazleak jasotzea; horiek gabe nekez egin baitaiteke eraginkortasunaren gaineko ondoko analisirik. Bada, dei egiten diegu administrazioetako arduradunei eta legegileei, guztiek batean helburu eta adierazle argiak eskainiko dituen aurrekontu-eredu baterantz bidea urra dezaten, kudeaketa publikoaren eraginkortasunaz mintzatzen utziko diguna.

Kontrol erakunde autonomikoek berariaz egin nahi dugu azpimarra langileen kudeaketan. Aintzat hartzen badugu erakundeek duten aktiborik garrantzitsuena dela, kudeaketa lan hori garai berriek dituzten eskakizunetara egokitu behar dela uste dugu eta horrek administrazioako langileen motibazioa eta prestakuntza indartzea eskatzen du, eta berebat, ordainsariei estu-estu lotutako helburuak ere ezartzea. Hitz labur, ondo egindako lana eta are lanerako jarrera hobea administrazioetan ere saritu dadila, modu horretara erakunde publikoen egitekoan buru izan behar duen akuilua indartuz.

Fiskalizazio irizpideak finkatzerakoan, kanpo kontrolerako erakunde autonomikoetako arduradun garenok aurrekontuaren ikuspegia abiaburu hartuta garrantzitsuen diren alorrei lehentasuna emateari gomendagarri irizten diogu, osasuna edo hezkuntza esate batera, gizarte ongizateari loturik dauden haiek saihestu gabe eta jakina, berebiziko arreta eskainiz “arrisku alor” diren haiei, hala nola, diru-laguntzak, herri-lanak edo hirigintza.

Diru-laguntza gaietan apustu garbia egin behar dugu fiskalizazioa ez dadin soilik mugatu administrazio-tramiteak egiaztatu, aurrekontua islatu eta diruz lagundutako jarduera justifikatzera; alabaina, gizartean duen eragina eta zein helburu betetzeko eman zen ere jomuga izan behar dugu. Era honetara, egiten diren transferentzia horien gaineko informazio giltzarria eman dezakegu, geroko balizko deialdiak balio-neurtzeko baliagarri gerta daitekeena.

Herri-lanak ere kanpo kontrolerako erakunde autonomikoek aztertu beharreko beste “arrisku-alor” ohikoa da. Zenbaitetan, komenigarri gerta daiteke auditorearen lana bizkartuko duen kanpoko laguntzaileen eskua baliatzea, prezio zein materialen kalitateari buruzko irizpenak emateko eskatuz, herri-lanaren kudeaketa askoz modu sakonagoan aztertzeko bide emango dutenak.

Hirigintzari dagokionez, hainbat udalek berriki erakutsi dituzten jokamolde guztiz lege kontrakoak gogoan, ezinbestekoa irizten diogu tokiko sektorearen azterketa esparruan hirigintzaren gaineko auditoria lanak indartzeari. Nolanahi den ere, helburu hori lortzeko ezinbestekoa da auditore publikoek alor horretan prestakuntza egokia izatea, albora utzi gabe auditoria mota honek duen arriskua aztertutako agiri eta kontuetatik kanpo geratzen den hartan egon ohi dela, hain zuzen ere.

Hona ekarri ditugun alor horiez gain, kontrolerako erakunde autonomoek beste erronka batzuei egin beharko die aurre gizartearen eskariak bideratu eta administrazioak zaharberritzeko egitekoan puntako izan nahi izatera.

Horretarako, bada, ezinbesteko dirudi herri-administrazioen informatika sistemen fiskalizazioan ahalegin handiagoa egitea. Helburuaren zailtasunaz jabeturik, hori lortzeko kanpoko adituen laguntza beharko baita, auditoria publikoak informatika sistema horiei buruz jardun beharko du, herri-administrazioen kudeaketan oinarri-oinarrizko direnak.

Funts publikoak kontrolatzeko egitekoan esparru berri bat politika publikoen ebaluazioa da, garapen iraunkorarekin loturik dagoena. Egungo gizartea garapena eta ingurumenaren zaintza bateragarri egiteko beharrak kezkatzen du. Bada, auditoria publikoaren teoriak ekologia gehitu dio kudeatzaile publikoen jardueran buru egin behar duten ohiko irizpideei: eraginkortasuna, efizientzia, ekonomia eta berdintasuna, alegia. Ingurumen politika horiek balio-neurtzea eta lurraldearen antolamendu, hirigintza, azpiegitura eta abarrekin uztartzea da sektore publikoaren auditoriak etorkizunean urratu beharreko ildoak. Honenbestez, litekeena da fiskalizazioaren ikuspegi berri hauek aurrera begira gure lan-taldeetan finantza auditoreak ez diren adituak txertatzeko eskatzea (arkitektoak, ingeniariak, ingurumeneko teknikariak, hirigileak, e.a.).

Amaitzeko esan behar da, kanpo kontrolerako erakunde demokratikoak berrezarri zirenetik ibilbide luzea egin duela espainiar erakunde sistemak eta Europar Batasunean sartzeak 1978an aurreikus zitekeenarekiko kontrol egiteko horren konplexutasuna areagotu duela, izan ere gastua ia erabat autonomia mailan egiten da. Hori dela eta, subsidiarioratasun-printzipioarekiko errespetua aintzat hartuta, dagokion araudi esparrua gaurkotzeari buruz hausnar egin beharko litzatekeela uste dugu.

Hitz labur, kanpoko kontrol autonomikoa bidea urratzen hasi eta hogeita bost urteren buruan ziklo bat itxi dela esan dezakegu, administrazioetako arduradun politiko eta kudeatzaileen artean kontrolaren kontzientzia publikoa txertatzeko balio izan duena. Esparru autonomiko zein tokiko erakundeek ontzat hartzen dute gure egitekoa eta ia beti bat datoz egiten ditugun diagnosiekin eta txostenetan berriaz azpimarratutako ahulguneekin. Aurrerantzean garrantzizkoa litzateke egiten ditugun gomendioak diru publikoaren kudeaketa egunez egun hobetzeko probetxuzko baliakizun izatea, eraginkortasuna hobetzera emandako haiek nagusiki. Aldi berean, kontrol erakundeok aurrera egin beharrean gaude gero eta erabilgarriagoa izango den auditoria jomuga hartuta; hau da, arestian aipatu ditugun gai berrietan murgilduko den fiskalizazioa, hiritar guztien ordezkarietza lanean legebiltzarrek agindu diguten egiteko garrantzitsuari erantzun emateko ahaleginean erronka berriak bere gain hartuko dituen.